




DURANGO

Udala • Ayuntamiento


GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDAL ETXEBIZITZEN ARAUDI ERREGULATZAILEAREN ONESPENARI BURUZKO ESPEDIENTEA

- Hasierako onarpena: 13.03.19 Osoko Bilkura.
- Iragarpenaren argitaratzea: BAO, [61. zk., 13.03.27.](#)
- Jendaurreko informazio epea: 2013ko maiatzaren 7an amaituko da.
- Alegazioak: EZ.
- Testu osoa argitaratzea: BAO, [90. zk., 13.05.13.](#)



AURKIBIDEA

1.- XEDEA	3
2.- ZERBITZUAREN ZEHAZPENA	3
3.- ESKURATZEKO BALDINTZAK.....	4
4.- ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURA:.....	4
5.- HARRERAREN IRAUPENA	6
6.- ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	6
7.- ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	7
8.- ERREBOKATZEA	10
9.- HARRERA IRAUNGITZEA	10
10.- UTZARAZPEN ADMINISTRATIBOA	11
I. ERANSKINA · ANEXO I.....	12
II ERANSKINA	13



Gizarte larrialdietarako udal etxebizitzaren araudi erregulatzailea

2013ko martxoaren 19ko Udaleko Osoko Bilkuran harturiko akordio bidez, hasiera batean onartu zen **Gizarte larrialdietarako udal etxebizitzaren araudi erregulatzailea** (2013ko martxoaren 27ko [61. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala](#)). Jendaurreko epea amaitutakoan, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez denez, aipaturiko Araudia **BEHIN BETIKO** onartzen da, ondoren ageri den bezala:

“GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDAL ETXEBIZITZEN ARAUDI ERREGULATZAILEA”.

1.- XEDEA

Araudi honen xedea da Durangoko Udalak larrialdi egoeran dauden familia-unitateentzat eskura dituen gizarte larrialdietarako etxebizitzetan ostatu hartzeko eta etxebizitza horiek erabiltzeko modua arautzea.

Hauek dira zerbitzuari atxikitako baliabideak:

- Etxebizitzaren katastro zk.: N-9322025W
- Etxebizitzaren katastro zk.: N-9322024X

Ekipatu ondoren, honako etxebizitzak atxikiko dira zerbitzura:


- Etxebizitzaren katastro zk.: N-9322021N
- Etxebizitzaren katastro zk.: N-9322020F
- Etxebizitzaren katastro zk.: N-9322023G
- Etxebizitzaren katastro zk.: N-9322022V
- Etxebizitzaren katastro zk.: N-0303268C
- Etxebizitzaren katastro zk.: N-0303269K

2.- ZERBITZUAREN ZEHAZPENA

Durangoko Udalak zuzenean emango du zerbitzua, eta Gizarte Ekintzako Sailaren bitartez kudeatuko du.

Etxebizitzarik ez dutenei edota bizikidetzaz arazo larriak dituztenei aldi batez ostatu emateko zerbitzua emango du Durangoko Udalak larrialdietarako etxebizitzetan. Hain zuzen ere, egoera hauetan emango du ostatu:

- a) Familiarteko arazo larri batek inoren segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duenean.



- b) Udalak hur-hurreko aurri deklaritzen duenean inork ohiko bizilekutzat duen eraikina, eta ondorioz beste bizileku bat behar duenean.
- c) Ezbeharren baten ondorioz (sutea, uholdea eta abar), inor bere ohiko etxebizitza gabe gelditzen denean.
- d) Beste larrialdi-egoera batzuetan.

Horrelako egoera batean egoteaz gain, beharrezkoa da onuradunek baliabide ekonomikorik ez izatea; zerbitzua, gainera aldi baterako bakarrik izango da beti; alegia, zerbitzua ezin da erabili, baldin eta konpondu beharreko arazoa denbora luzean konpontzekoa bada.

Etxebizitza bakoitzak pertsona-kopuru zehatz bat har dezake, eta higiezin bakoitzaren inbentario-fitxak adieraziko du zenbat pertsona har ditzakeen. Gehienez ere bi bizikidetzak unitate bizi daitezke etxebizitza berean –pertsona-kopuruaren muga gainditu gabe betiere–, salbu eta bizikidetzak unitateak pertsona bakarrekoak direnean; orduan, bi unitate baino gehiago bizi daitezke etxebizitza bakoitzean.

3.- ESKURATZEKO BALDINTZAK


Durango bizi diren pertsonak eta familia-unitateak izan daitezke onuradun, araudi honek ezartzen dituen baldintzen pean beti eta Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatuta eskakizun hauek betetzen badituzte betiere:

- a) Udalerrian errolatuta egotea, gutxienez urtebete lehenagotik.
- b) Adin nagusikoa izatea, eta eguneroko bizitzako jardueretarako autonomia izatea.
- c) Bizileku egokirik ez izatea, 2. artikulua aipatzen duen arrazoiren bat dela medio.
- d) Etxebizitza bat eskuratzeko baliabide ekonomiko, pertsonal edo familiarrik ez izatea.

Gizarte-zerbitzuek eskatzaileei euren egoera pertsonal eta sozioekonomikoari buruzko behar beste agiri eska diezaiekete –betiere agiri horiek ez badaude eskatzaileen espedientean jasota–, aipatutako eskakizunak betetzen dituzten egiaztatzeko eta gizarte-larrialdietarako etxebizitza batean ostatu hartu behar duten ebaluatzeko.

4.- ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURA:

Interesdunak eskatu behar du prozedura abiaraztea, eta, horretarako, eskatzaileak eskabidea bete eta sinatu behar du ([I. eranskina](#)), eta Durangoko Udaleko organo eskudunari helaraziko dio.



Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek bideratu eta ebaluatuko dituzte eskabideak, eta Udaleko gizarte-langileek aztertuko dituzte eskatzaile bakoitzaren egoera eta ezaugarriak.

Pertsonal teknikoak nahitaezko txostena egin behar du. Txostenak hauxe jasoko du:

- Eskatzailearen identifikazio-datuak.
- Eskatzailearekin normalean bizi diren gainerako lagunen identifikazio-datuak.
- Eskaria egitera bultzatu duen egoera azaltzea.
- Pertsonen egoera ekonomikoa.
- Araudi honetako 3. artikuluan ezartzen diren sarbide-baldintzak egiaztatzea.
- Larrialdietarako etxebizitzan sartzeko komenentziaren gaineko balorazioa eta, hau positiboa bada, emango zaion denborari buruzko proposamena.


Onarpen Batzordeak aztertuko du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostena baita hartan adierazitako egoera egiaztatzeko agiriak ere. Bestalde, honako hauek izango dira Onarpen Batzordearen kideak: Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi-delegatua, Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko teknikaria eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erreferentziazko gizarte-langilea.

Batzordeak eskaria aztertu eta ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpena dagokion organo eskudunak egingo du gizarte ekintza batzordeak aztertu eta gero. Ebazpenean onartu edo atzera botako da larrialdiko etxebizitzara sartzeko eskaria.

Eskaerari sarrera eman eta gehienez ere hamabost eguneko epean egin behar da ebazpena. Epea eten egingo da eskaerak konpondu behar direnean, eta etenda egongo da jakinarazpena egin eta hori bete bitartean, edo, bestela, emandako epea igaro bitartean.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro eta ebazpenik egin ez bada, ebazteko dagoen betebeharrari kalterik egin gabe, eskaera ez dela onartu ulertu behar da, eta interesdunak berraztertze-errekurtsoa jartzeko edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko eskubidea izango du.

Familia-unitate onuradunek etxebizitzan ostatu hartzeko agiria sinatuko dute ([II. eranskina](#)), etxebizitzan sartzen direnean, eta berariaz adieraziko dute baldintzak onartzen dituztela (baldintza horien artean, ostatu hartuta egoteko denbora ere bai). Bestalde, etxebizitzako ondasunen inbentario bat emango zaie.



URGENTZIAZKO PROZEDURA

Etxebizitza-beharra premiazkoa eta larria bada, Gizarte Ekintza Saileko teknikari arduradunak berariaz proposa dezake eskatzaileak [I.](#) eta [II.](#) eranskinak sinatu eta berehala sar daitezten larrialdietarako etxebizitza batean, nahiz eta eskabidea behar bezala bideratu ez izan. Halakoetan, agiriak sinatu bezain laster, arestian azaldutako prozedura jarriko da abian, behin betiko ebazpena eman dadin.

Premiazko prozedura bidez izandako sarreraren ondoren onuradunak uko egiten badio espediente hasieran edo bideratzean laguntzeari, edota espedienteari jarraiki aurkeztutako eskaera ez onartzea ebazten bada, zerbitzua utzi egin behar duela jakinaraziko zaio, eta, horretarako, jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita gehienez ere 10 egun natural dituela esango zaio. Hori egiten ez badu nahitaez aterako dute eskatzailea babes-etxetik.

5.- HARRERAREN IRAUPENA

Onuraduna larrialdiko etxebizitzan zenbat denboran egon ahal izango den ebazteko, kontuan hartuko da, batetik, pertsona edo familia-unitatea zer egoeratan dagoen eta, bestetik, zerbitzu horretara bultzatu duen arazoa konpontzeko zer aukera dagoen. Edonola ere, onuradunek etxebizitzan sartu eta sei hilabetez erabil dezakete gehienez zerbitzua. Epea, gehienera ere, sortzi hilabetera luza daiteke, organo eskudunaren ebazpen bidez, eta ebazpen horretan finkatuko da luzapena zenbatekoa den, betiere luzapen horren premia egiaztatzen bada eta Onarpen Batzordeak aldeko txostena egiten badu.


6.- ARAUBIDE EKONOMIKOA

Komunitate-gastuak eta etxebizitzak hobetzeko gastuak Durangoko Udalak ordainduko ditu, baita eraikina erabiltzeko eta edukitzeko ordaindu beharreko zerga guztiak ere (tartean, zaborra biltzeko zerga); era berean, energia elektrikoaren gastuak eta gas- eta ur-gastuak ere Udalak ordainduko ditu.

Dena dela, Udalak egoki irizten dituen neurriak har ditzake, erabiltzaileek hornigaiak neurritz kanpo ez kontsumitzeko.

Erabiltzaileek edo bizikidetz-unitateek zenbateko hauek ordaindu behar dituzte:

- A) Fidantza bat, 200 eurokoa. Udalaren Altxortegian ordaindu behar dute, etxebizitzako giltzak ematen dizkietenean. Dena dela, etxebizitzatik irteten direnean, itzuli egingo diete fidantza hori, etxebizitza bera eta haren edukia egoera onean daudela egiaztatutakoan. Alabaina, ikusten bada etxebizitzak kalteak dituela, familia-unitate



onuradunak hilabeteko epea izango du kalteak bere kontura konpontzeko, edo, bestela, fidantza osorik kenduko diote.

B) Hilabetean behin ordaindu beharreko kanon orokor bat:


- Pertsona edo familia-unitatearen diru-sarreraren % 30, onuradunari etxebizitza osorik laga bazaio.
- Pertsona edo familia-unitatearen diru-sarreraren % 15, onuradunari etxebizitzako gela bat laga bazaio.

Ohiz kanpoko egoeretan, Onarpen Batzordeak fidantza ordaintzetik edo/eta hileroko ordainketak egin behar izatetik salbuets ditzake onuradunak, baldin eta behar bezala egiaztatzen badute euren egoera ekonomikoa ez dela aipatutako zamei aurre egiteko modukoa.

7.- ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK:


1. Izaera orokorrez, artatutako pertsonak apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak aurreikusitako eskubideak dituzte. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu da.
2. Berariazko izaeraz, Dekretu honetan araututako artatze-bideen bidez babestutako pertsonak honako eskubide hauek dituzte:
 - a. Baliabidean egoteko eskubidea, Arautegi honetan ezarritako egotea amaitu dela azaltzen duten arrazoiren bat ez dagoen bitartean.
 - b. Etxebizitzatik nor bere borondatez irteteko eskubidea.
 - c. Pentsatzeko eta irizteko eta ideologia edo erlijio jakin batekoa izateko askatasunaren erabilera errespetatzeko eskubidea.
 - d. Intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzeko eskubidea.
 - e. Konfidentziasunerako eta bere intimitateari eragiten dioten izaera pertsonaleko datuak babesteko eskubidea.
 - f. Artatzeko baliabideko gelak eta bertan dauden erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.




- g. Norberaren egoerari dagokion zerbitzu eta prestazio egokiei buruzko informazioa eta orientabidea jasotzeko eskubidea.
- h. Iritzia emateko eskubidea baita baliabidearen funtzionamendua hobetzeko ardura duen instituzio edo erakundeari iradokizunak aurkezteko eskubidea ere. Honako bide hauek erabilia: erreklamazio-liburua, iradokizunen gutunontzia eta sarrerabatzordean zuzenean edo zeharka parte hartuta.
- i. Aurkeztutako iradokizun edo kexen gaineko erantzuna jasotzeko eskubidea. Erantzuna baliabidearen ardura duen instituzioak edo erakundeak eman behar du, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu duenak, ezarritako prozedura aplikatu dadin eta dekretu horretan ezarritako epeen barnean.
- j. Aipatutako eskubideen edukiari eta eskubide horiek erabiltzeko bideei buruzko informazioa hizkuntza ulerterrazean jasotzeko eskubidea

BETEBEHARRAK

1. Izaera orokorrean, artatutako pertsonen apirilaren 6ko, 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu duenak ezarritako betebeharrak dituzte.
2. Berariazko izaeraz, dekretu honek arautu dituen artatzeko baliabideetan hartutako pertsonen honako betebeharrak dituzte:
 - a) Zerbitzua erabiltzera behartzen duen egoera aldatzeko egin beharreko izapideak egin behar dituzte: izapide administratiboak edo/eta judizialak edo/eta beste edozelakoak.
 - b) Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek eskatutako agiriak dagokion epean aurkeztea.
 - c) Araudiak xedatzen duen kanona ordaindu behar dute.
 - d) Gizarte-zerbitzuek egoki irizten badiote, gizarteratzeko hitzarmen bat sinatu behar dute, eta hitzarmen horretan finkatzen diren konpromisoak bete.
 - e) Etxebizitzan sartzen utzi behar diete zerbitzuaren ardura duten udal-langileei edo haiek baimentzen dituztenei. Dena dela, udal-langileek onuradunen intimitatea errespetatuko dute beti, eta, hortaz, tratamendu bereziko ohiz kanpoko egoeretan izan ezik, bi alderdiek hitzordua egingo dute horretarako.



- f) Bizikidetzta-unitate bat baino gehiago bizi bada etxebizitzan, elkarrekin bizitzeko arauak bete behar dituzte (garbiketa- eta higiene-arauak, ordutegia eta abar). Bestalde, bizikideek eurek adostu behar dute nola egingo dituzten guztiek erabiltzen dituzten elementuetako etxeko lanak (korridorea, atartea, sukaldea, komuna...), eta adostutakoa bete. Nork bere seme-alabez arduratu behar du; umeak inola ere ezin dira gelditu bakarrik etxean, ez gauez ez egunez.
- g) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako portaera izatea, bizikidetzta errazteko eta hori bermatzen duten barne-arauak betetzeko.
- h) Erabiltzaileen artean gatazkak edo desadostasunak badaude, etxebizitzaren arduradunek neurriak hartuko dituzte, eta erabiltzaileek neurri horiek bete behar dituzte.
- i) Baliabidea partekatzen duten pertsonen pentsatze-, iritzi-, ideologia- eta erlijio-askatasuna errespetatzea.
- j) Larrialdietarako etxebizitzek familia-etxebizitza izateko baimena dutenez gero, etxebizitza horietan bizi direnek ezin dute legediak baimentzen ez duen jarduerarik egin (jarduera kaltegarriak, arriskutsuak, deserosoak...).
- k) Etxebizitzako ekipamendua eta tresneria behar bezala erabili behar dira, eta, baimenik izan ezean, ezin da altzaririk edo tresnarik sartu.
- l) Ezin da animaliarik eduki (salbuespen dira itsu-txakurren 17/1997 Legean, 1997ko azaroaren 21ekoan, baimendutako baldintzak); orobat, ezin da material arriskutsurik gorde. Berariaz dago debekatuta armak edukitzea.
- m) Etxebizitzak kalteren bat badu edo konponketa- edo hobekuntza-lanak behar baditu, gizarte-zerbitzuei jakinarazi behar zaie, eta, berariaz dago debekatuta hobekuntza- edo konponketa-lanak egitea, horretarako baimenik izan ezean. Larrialdietan bakarrik konpon ditzakete onuradunek matxurak beren kabuz, eta betiere matxura jaiegunetan edo udal-zerbitzuak lanean ari ez direnean sortu bada, baina, edonola ere, lehenbailehen jakinarazi behar dute arazoa, 72 orduko epean gehienez ere.
- n) Onuradunek ezin diete Durangoko Udalak baimentzen ez dituen pertsonen larrialdietarako etxebizitza erabiltzen utzi, pertsona horiekin edonolako ahaidetasuna edo harremana dutela ere.
- o) Etxebizitzan sartzean, tresneriaren eta etxeko horniduraren inbentarioa sinatu behar dute. Onuradunen egonaldia amaitzen denean, Durangoko Udalak inbentarioa aztertuko du, etxebizitza eta altzariak egoera onean dauden egiaztatzeko.



Inbentarioko ondasunen bat kaltetuta badago edo faltan badago, onuradunak hura konpontzeko edo erosteko gastuak ordaindu behar ditu, Durangoko Udalak finkatzen duen epean. Durangoko Udalak finkatzen duen epea igaro eta erabiltzaileak ez badu bere betebeharra betetzen, Udalak fidantza kenduko dio, eta faltan dauden edo kaltetuta dauden elementuak aldatuko ditu.

- p) Ezin da etxebizitzako giltzen kopiarik egin, ezta giltzak beste inori utzi ere. Egonaldia amaitzen dutenean, etxebizitzatik irteten diren egunean bertan, onuradunek Udalari itzuli behar dizkiote giltzak.
- q) Udalak ez du erantzukizunik, baldin eta larrialdietarako etxebizitzetan ostatu hartzen dutenek dirurik edo baliozko beste objekturik galtzen badute.

8.- ERREBOKATZEA


Dagokion espedientea bideratu ondoren, eta sarrera-batzordeak proposatua, zerbitzu-ematea aurreikusitako data baino lehen errebokatu daiteke, eskumena duen organoak egindako ebazpenaren bidez eta interesdunari entzun ondoren. Ebazpen hori onuradunari jakinarazi behar zaio.

Erabilera-eskubidearen errebokazioa honako kasuetan eman daiteke:

- Zerbitzua emateko kontuan hartutako datuak ezkutatu dituelako edo egia esan ez duelako.
- Zerbitzua izateko eskatutako baldintzaren bat bete ez duelako.
- Zerbitzu-emateari jarraipena egiteko eskatutako agiriren bat aurkeztu ez duelako.
- Beste erabiltzaile batzuk fisikoki edo psikikoki eraso dituelako.
- Bost egun baino gehiago igarota, errekurtsorik ez dagoelako eta, horretarako, ospitaleratu egin dutela edo beste arrazoi nagusiago batzuk dituela egiaztatu ez duelako. Epe hori zabaldu egin daiteke egoera berezietan, eta egoera horiek dagokion txosten teknikoaren bidez egiaztatu behar dira.
- Arautegi honetan aurreikusi diren erabiltzaileen beste betebeharrak batzuk bete ez dituelako.

9.- HARRERA IRAUNGITZEA.

Zerbitzua ematea honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:



- Harrera egoeran egoteko aurreikusitako denbora bukatu delako.
- Erabiltzaileak zerbitzuari uko egin diolako.
- Erabiltzailea hil egin delako.
- Zerbitzu-ematea eragin zuen beharra edo baldintzak desagertu direlako.

Zerbitzu-ematea iraungi dela aitortu ondoren, erabiltzaileak ebazpenean jaso den egunerako utzi behar du etxebizitza. Epe hori ez da inoiz jakinarazpena jaso den egunetik zenbatzen hasita 10 egun natural baino gehiago izango. Epea igaro eta etxebizitza utzi ez badu etxebizitza husteko egoki diren legezko neurriak har daitezke, betiere, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak araututakoa bete bada.


10.- UTZARAZPEN ADMINISTRATIBOA

Onuradunek larrialdietarako etxebizitzatik irten behar badute araudi honek xedatzen duen arrazoiren bat jazo delako edo epea iraungi delako baina etxebizitzatik irteteari uko egiten badiote, Durangoko Udalak utzarazpen administratibo bidez kanporatu ditzake, Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 120. artikulua eta hurrengoek edo araudi horren ordezkoko araudiak ezartzen dituzten prozedura-izapideei jarraikiz.”

Durangon, 2013ko maiatzaren 7a.

Alkatesa,

Izp.: Aitziber Irigoras Alberdi



GIZARTE-LARRIALDIKO ETXEBIZITZA BEHIN BEHINEKO OKUPATZEKO ESKARIA
SOLICITUD DE OCUPACION TEMPORAL DEL PISO DE EMERGENCIA SOCIAL

ESKATZAILEA · SOLICITANTE :

Izen-deiturak · Nombre y apellidos :

NAN · D.N.I.:.....

Jaiotze data eta lekua · Fecha de nacimiento y lugar :.....

Helbidea · Domicilio :

Tel.:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK · COMPONENTES DE LA UNIDAD FAMILIAR:

Izen-deiturak Nombre y apellidos	Ahaidetasuna eskatzailearekin Parentesco con el /la solicitante	Adina Edad

ADIERAZTEN DU:

Familia unitateak bizi diren ohiko etxebizitzatik atera behar izan direla eta etxebizitza-premian daudela honako arrazoi hauengatik:

Udalak hur-hurreko auri deklaritzen duen eraikina etxebizitza denean

Familiarteko arazo larri batek inoren segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duenean.

Ezbeharren baten ondorioz (sutea, uholdea eta abar), inor bere ohiko etxebizitza gabe gelditzen denean.

Beste larrialdi-egoera batzuk

EXPONE:

Que la unidad familiar de la que forma parte se ve obligada a abandonar el domicilio habitual en el que reside/n, y se encuentra/n en situación de necesidad de vivienda a causa de:

Declaración municipal de ruina inminente de la edificación que sirviera de residencia

Conflictos familiares graves que ponen en riesgo la seguridad física o emocional de las personas.

Siniestro de la vivienda (incendio , inundación ...) motivo por el cual han quedado sin vivienda

Otras situaciones de emergencia

OHARRAK · OBSERVACIONES

.....
.....
.....


ESKATZEN DU: GIZARTE-LARRIALDIKO ETXEBIZITZA Ara sartu ahal izatea, dagokion dokumentazioa aurkeztu eta gero.

Durango, 20.....-ren -(e)an

SOLICITA: El acceso al PISO DE EMERGENCIA SOCIAL, presentando para ello la documentación requerida.


Durango , a de de 20.....

Izp. · Fdo:



LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZAN HARRERARAKO DOKUMENTUA

DATA:	
ERABILTZAILEA Izen-deiturak: NAN: Errolda:	
BESTE ONURADUNAK	TITULARRAREKIN DUEN HARREMANA
HARRERAREN IRAUPENA :	
HASIERA-DATA:	AMAIERA-DATA:
LARRIALDIRAKO ETXEBIZITZA :	
HILEROKO KANONA :	
UDALAREN ERREFERENTZIDUN GIZARTE LANGILEA :	




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- Erabiltzaileak ondorengo konpromisoak hartuko ditu:
 - a) Larrialdietarako Etxebizitza erabiltzera behartzen duen egoera aldatzeko egin beharreko izapideak egin behar dituzte: izapide administratiboak edo/eta judizialak edo/eta beste edozelakoak.
 - b) Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek eskatutako agiriak dagokion epean aurkeztea.
 - c) Araudiak xedatzen duen kanona ordaindu behar dute.
 - d) Onuradunek ezin diete Durangoko Udalak baimentzen ez dituen pertsoneri larrialdietarako etxebizitza erabiltzen utzi, pertsona horiekin edonolako ahaidetasuna edo harremana dutela ere.
 - e) Etxebizitzan sartzen utzi behar diete zerbitzuaren ardura duten udal-langileei edo haiek baimentzen dituztenei.
 - f) Bizikidetzaren unitate bat baino gehiago bizi bada etxebizitzan, elkarrekin bizitzeko arauak bete behar dituzte (garbiketa- eta higiene-arauak, ordutegia eta abar). Bestalde, bizikideek eurek adostu behar dute nola egingo dituzten guztiek erabiltzen dituzten elementuetako etxeko lanak (korridorea, atartea, sukaldea, komuna...), eta adostutakoa bete. Nork bere seme-alabez arduratu behar du; umeak inola ere ezin dira gelditu bakarrik etxean, ez gauzez ez egunez.
 - g) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako portaera izatea, bizikidetzaren errazteko eta hori bermatzen duten barne-arauak betetzeko.
 - h) Erabiltzaileen artean gatazkak edo desadostasunak badaude, etxebizitzaren arduradunek neurriak hartuko dituzte, eta erabiltzaileek neurri horiek bete behar dituzte.
 - i) Baliabidea partekatzen duten pertsonen pentsatze-, iritzi-, ideologia- eta erlijio-askatasuna errespetatzea.
 - j) Larrialdietarako etxebizitzek familia-etxebizitza izateko baimena dutenez gero, etxebizitza horietan bizi direnek ezin dute legediak baimentzen ez duen jarduerarik egin (jarduera kaltegarriak, arriskutsuak, deserosoak...).
 - k) Auzokideen komunitateak dituen araudiak betetzea, eskailera garbiketa barne, komunitateak ezarri dituen tarte edota txandak kontutan hartuta.
 - l) Etxebizitzako ekipamendua eta tresneria behar bezala erabili behar dira, eta, baimenik izan ezean, ezin da altzaririk edo tresnarik sartu.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

- m) Ezin da animaliarik eduki (salbuespen dira itsu-txakurren 17/1997 Legean, 1997ko azaroaren 21ekoan, baimendutako baldintzak); orobat, ezin da material arriskutsurik gorde. Berariaz dago debekatuta armak edukitzea.
- n) Etxebizitzak kalteren bat badu edo konponketa- edo hobekuntza-lanak behar baditu, gizarte-zerbitzuei jakinarazi behar zaie, eta, berariaz dago debekatuta hobekuntza- edo konponketa-lanak egitea, horretarako baimenik izan ezean. Larrialdietan bakarrik konpon ditzakete onuradunek matxurak beren kabuz, eta betiere matxura jaiegunetan edo udal-zerbitzuak lanean ari ez direnean sortu bada, baina, edonola ere, lehenbailehen jakinarazi behar dute arazoa, 72 orduko epean gehienez ere.
- o) Ezin da etxebizitzako giltzen kopiarik egin, ezta giltzak beste inori utzi ere. Egonaldia amaitzen dutenean, etxebizitzatik irteten diren egunean bertan, onuradunek Udalari itzuli behar dizkiote giltzak.
- p) Etxebizitzan sartzean, tresneriaren eta etxeko horniduraren inbentarioa sinatu behar dute. Onuradunen egonaldia amaitzen denean, Durangoko Udalak inbentarioa aztertuko du, etxebizitza eta altzariak egoera onean dauden egiaztatzeko. Inbentarioko ondasunen bat kaltetuta badago edo faltan badago, onuradunak hura konpontzeko edo erosteko gastuak ordaindu behar ditu, Durangoko Udalak finkatzen duen epean. Durangoko Udalak finkatzen duen epea igaro eta erabiltzaileak ez badu bere betebeharra betetzen, Udalak fidantza kenduko dio, eta faltan dauden edo kaltetuta dauden elementuak aldatuko ditu.

Udalak ez du erantzukizunik, baldin eta larrialdietarako etxebizitzetan ostatu hartzen dutenek dirurik edo baliozko beste objekturik galtzen badute.

Aurreko betebeharrak ez betetzeak, harrera bertan behera utz dezake.

- A) Zerbitzuaren erabilera-eskubidea atzera botatzeko arrazoiak jasota daude, zehazki, GIZARTE LARRIALDIETARAKO DURANGOKO UDALAREN ETXEBIZITZEN ARAUDI ERREGULATZAILEAN:
 - Zerbitzua emateko kontuan hartutako datuak ezkutatu dituelako edo egia esan ez duelako.
 - Zerbitzua izateko eskatutako baldintzaren bat bete ez duelako.
 - Zerbitzu-emateari jarraipena egiteko eskatutako agiriren bat aurkeztu ez duelako.
 - Beste erabiltzaile batzuk fisikoki edo psikikoki eraso dituelako.
 - Bost egun baino gehiago igarota, errekurtsorik ez dagoelako eta, horretarako, ospitaleratu egin dutela edo beste arrazoi nagusiago batzuk dituela egiaztatu ez duelako. Epe hori zabaldu egin daiteke egoera berezietan, eta egoera horiek dagokion txosten teknikoaren bidez egiaztatu behar dira.
 - Arautegi honetan aurreikusi diren erabiltzaileen beste betebeharrak batzuk bete ez dituelako.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

B) Zerbitzua emateari honako arrazoi hauek tarteko utz dakioko:

- Abegi-etxean egoteko aurreikusitako denbora bukatu delako.
- Erabiltzaileak zerbitzuari uko egin diolako.
- Erabiltzailea hil egin delako.
- Zerbitzu-ematea eragin zuen beharra desagertu delako.

Erabiltzaileak irakurri eta ulertu egin du dokumentu honen edukia, beraz, sinatzen du

Durango, 20... ..-ren.....-(e)an.

Izp. Erabiltzailea.